# IKUSIZKO KULTURAREN FABRIKA
# FÁBRICA DE CULTURA VISUAL

Donostiako tabako fabrika izandakoa ikusizko kulturaren fabrika, kultura garaikidearen nazioarteko zentro bilakatzeko bidean dago.

Tabakaleraren helburua ikusizko kulturarekin lotutako eremu guztietan sorkuntza, ezagutza eta parte hartzea bultzatzea da. Horretarako arte garaikidea, zinea, telebista, diseinua, soinua eta bestelako adierazpide kultural garaikideak harremanetan jarriko ditu.

Arteari eta ikus-entzunezkoei loturiko formatu berriak sortu, erakutsi eta eztabaidatzeko gunea da. Horien ekoizpena bultzatzen du, baliabideak eskainiz eta sortzaileen, industrien eta hiritarren arteko topaleku bilakatuz. Bistarazi egiten ditu erakusketa, proiekzio eta emanaldien bitartez. Trebakuntza eta eztabaida sustatzen ditu eta informazioa eta dokumentazioa eskaini. Publikoen arteko elkarreragina bilatzen du.

Tabakalerak jada hasi du bere ibilbidea, baina behin eraikina eraberritzen denean, 2013an, orduan bilakatuko da benetan ideia eta irudien fabrika, hiriko espazio publiko berria.

La antigua fábrica de tabacos de Donostia-San Sebastián se está transformando en una fábrica de cultura visual, en un centro internacional de cultura contemporánea.

Tabakalera quiere impulsar la creación, el conocimiento y la participación en todas las áreas relacionadas con la cultura visual, poniendo en relación el arte contemporáneo, el cine, la televisión, el diseño, el sonido y otras manifestaciones de la cultura actual.

Es un espacio para crear, mostrar y debatir nuevos formatos artísticos y audiovisuales. Contribuye a su creación, ofreciendo recursos y convirtiéndose en punto de encuentro entre creadores, industrias y ciudadanía. Los muestra a través de exposiciones, proyecciones y actuaciones. Promueve la formación y la reflexión. Aporta información y documentación. Y busca la interacción con los públicos

Tabakalera ha iniciado ya su andadura, pero será tras la renovación del edificio, en 2013, cuando se convierta realmente en una fábrica de ideas e imágenes, en un nuevo espacio público urbano.

# DIZIPLINA ETA FUNTZIO ANITZEKOA
# MULTIDISCIPLINAR Y MULTIFUNCIONAL

Kultura garaikideari eskainitako espazio berrien ildotik –gehien bat berregituratutako industria-eraikinak– Tabakalera gune hibridoa izango da, jarduera eta proposamen hibridoei eskainia eta publiko hibridoei zuzendua. Diziplina eta funtzio anitzeko gunea izango da:

**EKOIZPENA**: Tabakalera ez da soilik kultura begiesteko lekua izango, kultura ekoizteko lekua izango da. Espazioak, teknologia eta ezagutza eskainiko dizkie sortzaileei eta industriei, artelanen eta ikus-entzunezko proiektuen sorkuntza ahalbidetuz.

**ERAKUSKETA**: Telebista, soinu, ikus-entzunezko eta abarren programazioak. Arte, diseinu edo gaikako erakusketak. Arte eszenikoak eta musika. Kultura garaikidearekin topo egiteko lekua izango da.

**TREBAKUNTZA/EZTABAIDA**: Trebakuntza irekia eta iraunkorra eskainiko du, sortzaileekin, ikus-entzunezkoen industriekin eta hezkuntza eta unibertsitate sareekin elkarlanean garatuko diren kultura garaikideari loturiko ikastaro, tailer eta jardunaldien bitartez.

**ARTXIBATZEA/BANAKETA**: Tabakalerak mediateka digital bat edukiko du, ikusizko kulturan eta gaurkotasunean espezializatutako baliabide dokumentalen zentro bat, kultura garaikideari ikus entzunezkoen ikuspegitik begiratuko diona. Dokumentuak, ezagutza eta teknologia eskuragarri jarriko ditu eta informazioaren kudeaketan trebakuntza iraunkorra eskainiko du.

En línea con los nuevos espacios para la cultura contemporánea –en su mayoría, espacios industriales reconvertidos–, Tabakalera se proyecta como un espacio híbrido para actividades y propuestas híbridas y públicos híbridos. Será multidisciplinar y multifuncional:

**PRODUCCIÓN**: Tabakalera no será sólo un lugar para contemplar la cultura, será un lugar para producirla. Cederá espacios, tecnología y conocimiento a creadores e industrias, facilitando la creación de proyectos artísticos y audiovisuales.

**EXHIBICIÓN**: Programaciones audiovisuales, de televisión, de sonido… Exposiciones de arte, diseño o temáticas. Artes escénicas y música. Será un espacio de encuentro con la cultura contemporánea.

**FORMACIÓN/DEBATE**: Ofrecerá formación abierta y permanente a través de cursos, talleres o jornadas en torno a la cultura contemporánea, desarrollados en colaboración con creadores, industrias del audiovisual y redes educativas y universitarias.

**ARCHIVO/DIFUSIÓN**: Tabakalera contará con una mediateca digital, un centro de recursos documentales especializado en cultura visual y temas de actualidad, que aborde la cultura contemporánea desde lo audiovisual, ofreciendo acceso a documentos, conocimiento y tecnología y una formación permanente en gestión de la información.

# PARTEKATUTAKO PROIEKTUA
# PROYECTO COMPARTIDO

**ERAKUNDE ARTEKO PROIEKTUA**
Jaiotzatik bertatik hiru erakundek partekatzen duten proiektua da Tabakalera, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalaren ekimena izan baitzen eraikina erosi eta proiektua abiaraztea.

**ELKARLANEAN**
Kolaborazioa funtsezkoa da Tabakaleraren eraikuntzan. Arte eta sorkuntza ingurua, teknologia eta ikus-entzunezkoen industriak, artxibo eta liburutegien sareak, Unibertsitatea eta, orokorrean, hiritarrak partaide izatea ezinbestekoa izango da.

**BATERATZEAK**
Tabakalerak aukera egokia eskaintzen du lurraldeak dituen kultur zerbitzu publikoak birformulatu eta berrantolatzeko. Bultzada emango dio elkarlana indartzeari eta aro digitalera egokitzeko beharrezko den eraldaketari begira pizgarri izango da. 2008an sinatutako erakunde arteko akordioaren ondorioz Artelekuk, KMK-ko erakusketa zerbitzuak, Donostia Kulturaren Zine Unitateak eta Euskadiko Filmategiak bat egingo dute Tabakaleran.

**PROYECTO INTERINSTITUCIONAL**
Desde su origen, Tabakalera es una iniciativa compartida por las tres instituciones que compraron el edificio y pusieron en marcha el proyecto: el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

**EN COLABORACIÓN**
La colaboración de su entorno es clave para construir Tabakalera. Colaboración del entorno artístico y creativo, de la industria audiovisual y tecnológica, de la red de archivos y bibliotecas, de la Universidad y de la ciudadanía en general.

**CONFLUENCIAS**
Tabakalera se presenta como la ocasión de reformular y reordenar los servicios culturales públicos del territorio, un impulso para reforzar la colaboración y un acicate para la transformación que requiere la era digital. Como consecuencia del acuerdo interinstitucional de 2008, confluirán en Tabakalera Arteleku, el servicio de exposiciones del KMK, la Unidad de Cine de Donostia Kultura y la Filmoteca Vasca.

# LEKU BIZIA
# ESPACIO VIVO

Tabakalera bizirik dago jada. Azken urteotan hainbat jarduera antolatu ditu eta beste hainbat bere espazioetan hartu ditu, betiere, etorkizunean izango dena marrazteko asmoarekin.

Erakusketak izan dira, besteak beste, *Summer* –Julian Schnabelen lanekin osatua–, *Ez da neutrala* –Daros-Latinamerica bildumako artelanak–, *Egiatik* –inguru hurbilenarekin harremana estutzeko espazioa–, *Look Again* –bideo garaikidearen bost ikuspegi–, edo *Tabakalera Soinutan* –eraikinean barnako ibilbidea soinu instalazioek gidatua.

Horrez gain, Tabakalerak ikus-entzunezkoekin lotutako hainbat jarduera antolatu ditu beste erakunde batzuekin elkarlanean, hala nola, Clermont-Ferrand Film Laburren Jaialdia, FIPA –Ikus-entzunezko Saioen Jaialdia–, edo Donostia Zinemaldia. Era berean, asko izan dira Tabakalerako fabrika kutsuko espazioak eszenategitzat hartu dituzten filmak, bideoklipak, spotak, etab.

Berritze lanen ondorioz eraikina itxirik egongo den epean, Tabakalerak beste erakundeekin kolaboratzeari bultzatzeari eutsiko dio, jarduerak antolatu ditu eta Kultur Zentroaren behin betiko irekierari begira lanean jarraituko du.

Tabakalera es ya un lugar vivo. Durante estos últimos años ha organizado y ha acogido numerosas y variadas actividades, con el objetivo de perfilar el futuro próximo.

Se han llevado a cabo exposiciones como *Summer*, –de Julian Schnabel–, *No es neutral* –con obras de la Colección Daros-Latinamerica–, *Egiatik* –un espacio de interacción con el entorno más próximo–, *Look Again* –cinco visiones de vídeo contemporáneo– o *Tabakalera Suena* –un recorrido por el edificio a través de instalaciones sonoras–.

Además, Tabakalera ha co-organizando actividades relacionadas con el mundo del audiovisual, en colaboración con otros organismos como el Festival de Cortometraje Clermont-Ferrand, el Festival de Programas Audiovisuales de Biarritz, FIPA, o el Festival de Cine de San Sebastián. Y a su vez, los espacios fabriles de Tabakalera han sido escenario de numerosos rodajes de películas, spots, videoclips, etc.

Durante el período en el que el edificio esté cerrado por obras, Tabakalera continuará colaborando con instituciones, organizando actividades y trabajando para la puesta en marcha definitiva del Centro.

# BERRITZE ARKITEKTONIKOA
# RENOVACIÓN ARQUITECTÓNICA

**BERRITZE ARKITEKTONIKOAREN EGUTEGIA**

**2008**
Jon eta Naiara Montero arkitektoek Berritze Arkitektonikorako Nazioarteko Lehiaketa irabazi zuten.

**2010**
Eraikinaren itxiera, 3 urtez luzatuko diren berritze lanak burutzeko.

**2013**
TABAKALERAk ateak zabalduko ditu Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro gisa.

**ARKITEKTURA PROIEKTUAREN ARDATZ NAGUSIAK**

- Egituran ahalik eta esku-hartze txikiena egitea eta eraikinaren garrantzia nabarmentzea.
- "Loggia" bat sortzea, hiriko plaza bat, balio anitzekoa eta zati batean estalia egongo dena. Komunikazio zuzena izango du Egia auzoarekin eta Tabakalera barrutik zeharkatuko duen kalearekin.
- Beirazko bolumen bat eraikitzea eraikinaren gorputz nagusiaren gainean. Horrela, energia berriztagarriak bilatuko dira eta eraikinaren itxura simetrikoa indartuko da.

**CALENDARIO DE LA RENOVACIÓN ARQUITECTÓNICA**

**2008**
Los arquitectos Jon y Naiara Montero ganaron el Concurso Internacional de Renovación Arquitectónica.

**2010**
Cierre del edificio para comenzar las obras de renovación que durarán 3 años.

**2013**
TABAKALERA abrirá sus puertas como Centro Internacional de Cultura Contemporánea.

**PRINCIPALES EJES DEL PROYECTO ARQUITECTÓNICO**

- Minimizar las intervenciones estructurales y poner en valor el edificio.
- Crear una "loggia", una nueva plaza urbana, plurifuncional y parcialmente cubierta, que comunicará directamente con el barrio de Egia y con la calle interna que atravesará el edificio.
- Levantar un volumen de vidrio sobre el cuerpo central del edificio, en busca de las energías alternativas y reforzando la imagen simétrica del edificio.

# AURREIKUSITAKO ESPAZIOAK
# ESPACIOS PREVISTOS

| | |
|---|---|
| **EKOIZPENA**<br>Sortzaileei, kultur eragileei, ekoizpen etxeei, etab. uzteko espazioak<br>Ikus-entzunezko ekipamenduak (areto teknikoak, platoak...) | **PRODUCCIÓN**<br>Espacios de cesión para creadores, empresas culturales, productoras, etc.<br>Equipamiento audiovisual (salas técnicas, platós...) |
| **ERAKUSKETA**<br>Interbentzioetarako espazioak<br>Erakusketa aretoak<br>Proiekzio aretoak<br>TBKafea | **EXHIBICIÓN**<br>Espacios de intervención<br>Salas de exposiciones<br>Salas de proyecciones<br>TBKafé |
| **TREBAKUNTZA ETA EZTABAIDA**<br>Auditoriuma<br>Ikasgelak | **FORMACIÓN Y DEBATE**<br>Auditorium<br>Aulas |
| **MEDIATEKA** | **MEDIATECA** |
| **HARREMAN ETA AISIRAKO GUNEAK**<br>Kalea<br>Jatetxeak<br>Dendak | **ESPACIOS DE RELACIÓN Y OCIO**<br>Calle<br>Restaurantes<br>Tiendas |
| **ETXEPARE INSTITUTUA** | **INSTITUTO ETXEPARE** |
| **EUSKADIKO FILMATEGIA** | **FILMOTECA VASCA** |

**NON DÓNDE**





**TABAKALERA**
Duque de Mandas, 52
E 20012 Donostia-San Sebastián
Tel +34 943 011 311
tabakalera@tabakalera.eu
**www.tabakalera.eu**


K Kursaal
VE Victoria Eugenia
KM Koldo Mitxelena
R Renfe







Estudio Lanzagorta

TABAKALERA

**IKUSIZKO KULTURAREN FABRIKA**

**FÁBRICA DE CULTURA VISUAL**

www.tabakalera.eu
























